

**DIRULAGUNTZA-PROGRAMEI BURUZKO EBALUAKETA 2024****JUSTIZIA ETA GIZA ESKUBIDEAK**

1. Karrera Judizial eta Fiskalerako eta Justizia Administrazioiko Letraduen Kidegorako oposizioa prestatzeko dirulaguntzak ematea 2
2. Euskal espetxeetan askatasunaz gabetuta dauden zigortuak birgizarteratzeko eta haiei gizarte arreta emateko proiektu komunitarioak, zigorrak betearazten zein espetxean, eremu irekian edo komunitarioan daudenei tratamendua ematen lagunduz 4
3. Elkarrekin Bonuak 7
4. Elkarbizitzaren eta giza eskubideen arloan proiektuak burutzen dituzten irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatuentzako dirulaguntzak 10
5. Udalei bizikidetza eta giza eskubideen programetarako dirulaguntzak 12
6. Giza Eskubideen «René Cassin» Saria 14



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Karrera Judizial eta Fiskalerako eta Justizia Administrazioiko Letraduen Kidegorako oposizioa prestatzeko dirulaguntzak ematea

2.- Araua

AGINDUA, 2023ko azaroaren 29koa, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburuarena, Karrera judizialera, fiskalera eta Justizia Administrazioiko letraduen kidegora sartzeko prestaketa-laguntzetarako 2024ko ekitaldirako deialdia egiten duena eta laguntza horiek arautzen dituen Justizia (2023ko abenduaren 7ko EHAA, 233. zk.).

EBAZPENA, 2024ko otsailaren 27koa, Justiziako sailburuordearena, ebatzi eta argitaratu egiten dituen Karrera Judizial eta Fiskalerako eta Justizia Administrazioaren Letraduen Kidegorako sarbidea prestatzeko 2024ko ekitaldirako laguntzak zeinak Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburuaren 2023ko azaroaren 29ko Aginduaren bidez deituak eta arautuak izan ziren (2024ko martxoaren 13ko EHAA, 53 zenbakia).

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAri Hiperesteka)

1.- Deialdia: : <https://www.euskadi.eus/web01-bopv/es/bopv2/datos/2023/12/2305450e.pdf>

2.- Emakida: <https://www.euskadi.eus/web01-bopv/es/bopv2/datos/2024/03/2401312e.pdf>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Zuzenbideko lizentziadunak karrera judizialera, fiskalera eta Justizia Administrazioiko letraduetara sartzeko prestatzeko motibatzea helburu duen laguntza-lerroa.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatze eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

Karrera Judizialerako, Fiskalerako eta Justizia Administrazioiko Letraduen Kidegorako oposizioak prestatzeko dirulaguntzak emateko programa Justizia Administrazioaren 1411 Programaren 10. helburuan jasota dago: "Lanbide judizialen egonkortasuna sustatzea". 264.000 euroko aurrekontu-zuzkidura aurreikusi da, eta zuzkidura horren gauzatze-maila 209.000 eurokoa da.

Deialdia ebatzi ondoren, 35 beka eman dira guztira; horietatik 28 emakumeei esleitu zaizkie eta 7 gizoni, aurreikusitako 40 beketatik. Argi eta garbi ikusten da laguntza horien onuradun izan diren emakumeen kopurua handiagoa dela.

Onura eta eragin sozial handia du, nahiz eta aurreikusitako 40 bekak ezin izan diren eman; izan ere, laguntza horien bidez, baliabide ekonomiko gutxiago dituzten gazteei Karrera Judizialean, Fiskalean eta Justizia Administrazioiko letraduetan sartzeko erraztu nahi zaie.



6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emitza</u>
Eskatzaile kopurua	41	35

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Euskal espetxeetan askatasunaz gabetuta dauden zigortuak birgizarteratzeko eta haiei gizarte arretea emateko proiektu komunitarioak, zigorrak betearazten zein espetxean, eremu irekian edo komunitarioan daudenei tratamendua ematen lagunduz

2.- Araua

AGINDUA, 2023ko azaroaren 2koa, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailburuarena, euskal espetheen mende askatasunik gabe dauden zigortuak birgizarteratzeko eta haiei gizarte-arretea emateko proiektu komunitarioak helburu dituzten norgehiagoka-araubideko dirulaguntzak emateko oinarri arautzaileak eta deialdia ezartzen dituena, bai eta zigorrak betearazten zein espetxean, eremu irekian edo komunitarioan eta Europar Batasunean tratatzen laguntzeko proiektuak ere.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAari Hiperesteka)

Deialdia: <https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2023/11/2305229e.shtml>

Ebazpena: <https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2024/05/2402116e.shtml>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Dirulaguntza norgehiagoka bidez, askatasunik gabe dauden pertsonak gizarteratzeko proiektuak finantzatzeko. Proiektu horiek Euskadiko esku-hartze sozialeko hirugarren sektoreko erakundeek garatu zituzten 2024. eta 2025. urteetan. 2 urte bakoitzerako aurrekontua 2.500.000 €-koa da.

Diruz lagundutako proiektuak lerro hauetako baten barruan sartzen dira:

A. Mendekotasuna gainditzeko, tratamendurako, jarraipenerako eta gizarteratzeko esku-hartze proiektuak, bai espetxean, bai ingurune irekian, adikzio-arazoak dituztenak, substantzia psikoaktiboekin edo gabe, eredu bio-psiko-sozial batetik.

B. Esku-hartze psikoterapeutikoko, psikohezkuntzako eta sozioedukatiboko proiektuak, espetxean nahiz ingurune irekian askatasunaz gabetuta dauden pertsonen banakako eta/edo taldeko arretea, tratamendua eta laguntza emateko, bai eta tratamendu-programa espezializatuak ere, bai zuzentzen zaion kolektibo bereziki kalteberagatik, bai honako delitu hauengatik: genero-indarkeria, sexu-indarkeria, familia barruko indarkeria, indarkeria-, ekonomia-, diskriminazio- eta gorroto-delituak, bide-segurtasunaren aurkakoak, ingurumena babestekoak eta animaliak babestekoak, besteak beste.

C. Espetxean nahiz ingurune irekian askatasunik gabe dauden pertsonen gizarteratze- eta laneratze-prozesuak bultzatzeko proiektuak: orientazio-programak, prestakuntza-programak, enplegu-sustapenerako programak, okupazio-programak, bitartekotza, gizarteratze- eta laneratze-ibilbideetako gizarte-laguntza, eta abar, Lanbideren eta Aukerak-en eskaintzaren osagarri izango direnak, modu integralean, laguntza, aholkularitza edo prestazioen kudeaketarekin.

D. Aisialdi hezigarriko jarduera soziokulturalen proiektuak, trebetasun pertsonalen eta sozialen garapena eta kulturarako sarbidea bultzatzen dutenak, eta zentroetan egoteko denborari balioa eta erabilgarritasuna ematen diotenak, haien sozializazioa eta aldaketa pertsonalerako prozesua sustatzen dutenak, hala nola:



arte bisualak, plastikoak, eszenikoak eta ikus-entzunezkoak; lehiaketak, erakusketak, erakusketak eta azokak antolatzea, ariketa fisikoa eta kirola egitea; irteera kulturalak eta naturako paseoak; hezkuntza denbora librean, etab.

E. Berrezarpen-prozesuen testuinguruan erantzukizuna hartzen laguntzeko proiektuak. Biktimei eragindako kalte eta kalteaz jabetzen, beren gain hartzen eta lehengoratzten lagunduko duten ekimenak.

F. Askatasunaz gabetzeko zigorren ordezkotako zigorrak eta neurriak betearazteko eta horien jarraipena egiteko lankidetzako proiektuak: segurtasun-neurriak, eteteak eta gizartearentzako lanak.

Planteatutako helburuak:

- Zigortuak edo euskal espetxeetan edo baldintzapeko askatasunean dauden pertsonak birgizarteratzeko proiektu komunitarioak sustatzea.
- Tratamendu-indibidualizazioa eta zigorrak eta neurriak sustatzea ingurune irekian.
- Gizarteratzeko euskal sarea sortzea.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. Dirulaguntza-programaren genero-ikuspegiaren izango duen eragina ere jasoko da, hala dagokionean.

Deialdia irekita, hirugarren sektoreko 39 erakunderen 77 proiektu aurkeztu ziren. Dirulaguntza eskaera guztien artetik, 3 baztertu ziren, 25ek atzera bota ziren, eta 49k baietsi. 2024. urtean emandako zenbatekoa 2.469.456,33 € izan da, eta exekutututakoa 2.455.141,81 €.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Zigortuen egoitza-harrerarako, bizitokirako edo antzerako harrerarako baliabideen kopurua, bereziki premia bereziak dituztenena: kalteberatasun-egoeran dauden pertsonak, beren ardurapean seme-alabak dituzten emakumeak, etab. eta artatutako pertsonak.	Plazak: 120 Pax: 170	Plazak: 150 Pax: 240
Erregimen irekian edo adikzio- edo osasun-arazoak dituzten zigortuen eta arreta jaso duten pertsonen harrera-baliabideen kopurua	Errekurtsoak: 15 Pax:200	Errekurtsoak: 14 Pax:320
Errestaurazio-prozesuen testuinguruan zigortuak erantzule egiten laguntzeko programen kopurua. Eta artatutako pertsonak.	Programak: 2 Pax:55	Programak: 2 Pax:85
Sozializazioa sustatzen duten aisia hezitzaileko jarduera-programen kopurua. Eta artatutako pertsonak.	Programak: 20 Pax: 300	Programak: 13 Pax:520
Bizikidetzaren, gizarteratzearen, laneratzearen eta garapen komunitarioaren eremuko programen kopurua. Eta artatutako pertsonak.	Programak: 8 Pax:75	Programak: 3 Pax:115
Baldintzapeko askatasun-egoeran dauden pertsonentzako esku-hartze psikoedukatiboko programen kopurua. Eta artatutako pertsonak	Programak: 23 Pax:65	Programak: 15 Pax:135



Zigorrak eta zigorren ordezeko neurriak betearazteko eta horien jarraipena egiteko lankidetzaren programen kopurua askatasunaz gabetzen dutenak. Eta artatutako pertsonak	Programak: 4 Pax:100	Programak: 2 Pax:110
---	-------------------------	-------------------------



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Elkarrekin Bonuak

2.- Araua

110/2014 DEKRETUA, ekainaren 17koa, Elkarrekin Bonuen Programa arautzen duena.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAri Hiperesteka)

Arau erregulatzailea: <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2014/06/1402724a.shtml>

EBAZPENA, 2024ko maiatzaren 2koa, Giza Eskubide, Biktima eta Aniztasuneko zuzendariarena, zeinaren bidez hezkuntzaren esparruko Elkarrekin Bonuak Programaren 2024ko deialdia egiten baita.

EBAZPENA, 2024ko maiatzaren 2koa, Giza Eskubide, Biktima eta Aniztasuneko zuzendariarena, zeinaren bidez tokiko bizikidetzaren esparruko Elkarrekin Bonuak programaren 2024rako deialdia egiten baita.

EBAZPENA, 2024ko maiatzaren 2koa, Giza Eskubide, Biktima eta Aniztasuneko zuzendariarena, zeinaren bidez herritarren parte-hartzearen esparruko Elkarrekin Bonuak Programaren 2024rako deialdia egiten baita.

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Programa honen bidez, bizikidetzaren eta gizarte-topaketaren kultura berri bat sustatzera bideratutako proiektuak diruz laguntzen dira, irabazi-asmorik gabeko erakundeen eta hiru eremurekin lotutako erakundeen artean batera sustatzen direnak: hezkuntza, udal-errealitatea (tokiko bizikidetzak) edo herritarren parte-hartzea.

Bakearen eta bizikidetzaren gaiekin zerikusia duten irabazi-asmorik gabeko erakundeei ekarpen ekonomiko bat eskaintzen zaie, «bono» izenekoak, ordu justifikatu bakoitzeko, hezkuntzaren, tokiko bizikidetzaren edo herritarren parte-hartzearen arloetan prestakuntza- edo dinamizazio-zerbitzuetan, eskolei, udalei eta beste erakunde batzuei eskainiak, gai espezifiko batzuetan, hala nola bakearen kulturean, giza eskubideetan, biktimekiko elkartzunean, adiskidetzan edo gatazkak konpontzean.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. Dirulaguntza-programaren genero-ikuspegian izango duen eragina ere jasoko da, hala dagokionean.

Hauek izan dira 2024ko ikasturtean programaren hiru jarduera-eremuetan lortutako emaitzak:

Hezkuntza-eremua (250.000 € aurrekontuan)

- Erakunde onuradunak: 17 erakunde, Diruz lagundutako proiektuen kopurua: 122 proposamen jaso ditugu, eta horietatik 80 diruz lagundu dira (ez dira onartu: 8 atzera egiteagatik, 25 aurrekontu-kreditua agortzeagatik eta 9 erakunde onuradun bakoitzeko gehieneko zenbatekoa gainditzeagatik).
- Erakunde hartzaileen kopurua: 86 ikastetxe
- Parte hartu duten ikasleen kopurua: 5.923



- Parte hartu duten ikasleen kopurua: 5.929
- Parte hartu duten irakasleen kopurua: 323, Parte hartu duten irakasleen kopurua: 140
- Parte hartu duten amen kopurua: 89, Parte hartu duten gurasoen kopurua: 14
- Parte hartu duten ez-irakasle-emakume kopurua: 19, Parte hartu duten ez-irakasle-gizon kopurua: 5
- Emandako dirulaguntza guztira: 250.000 €, Emandako bonuen kopurua: 3.571€
- Ordaindutako/justifikatutako dirulaguntza: 244.470 €

Herritarren partaidetzaren eremua (100.000 € aurrekontuan)

- Erakunde onuradunak: 15 erakunde, Diruz lagundutako proiektu-kopurua: 48 proposamen jaso ditugu: 31 osorik diruz lagunduak, 7 diruz lagunduak (parte-hartzaileen mugarekin), 1 diruz lagunduak (kreditu-mugarekin), 7 ukatzeagatik, 1 aurrekontu-krediturik ez izateagatik, eta 1 eremutik kanpo egoteagatik.
- Erakunde hartzaileen kopurua: 57 erakunde
- Parte hartu duten emakumeen kopurua: 2.644, Parte hartu duten gizonen kopurua: 2.029
- Guztira emandako dirulaguntza: 100.000 €. Emandako bonu kopurua: 1.429
- Ordaindutako/justifikatutako dirulaguntza: 100.000 €

Udal-eremua (tokiko bizikidetzak) (150.000 € aurrekontuan)

- Erakunde onuradunak: 17 erakunde, Diruz lagundutako proiektuen kopurua: 34 proposamen jaso ditugu, eta horietatik 30 diruz lagundu dira eta 2 ukatuak izan dira eta beste 2 udalerako kreditu faltagatik.
- Udal hartzaileen kopurua: 16 udal
- Parte hartu duten emakumeen kopurua: 7.830, Parte hartu duten gizonen kopurua: 7.239
- Guztira emandako dirulaguntza: 150.000 €, Emandako bonuen kopurua: 2.142
- Ordaindutako/justifikatutako dirulaguntza: 142.740 €

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Elkarrekin Bonu Programa garatzea hezkuntza formalean. • Lagundutako ekimenen kopurua. • Parte hartzen duten erakundeen kopurua. • Parte hartu duten ikastetxeen kopurua.	130 20 70	80 17 86
Herritarrek parte hartzeko ekimenak bultzatzea, Elkarrekin Parte Hartzeko bonuen programaren bidez. • Lagundutako ekimenen kopurua. • Parte hartzen duten gizarte-erakundeen kopurua.	40 15	31 15



Udalekin eta aldundiekin partekatutako ekimenak bultzatzea, Elkarrekin Udal Bonuak programaren bidez.		
• Lagundutako ekimenen kopurua.	30	30
• Parte hartzen duten erakundeen kopurua.	15	17



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Elkarbizitzaren eta giza eskubideen arloan proiektuak burutzen dituzten irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatuentzako dirulaguntzak

2.- Araua

57/2018 DEKRETUA, apirilaren 24koa, bizikidetzaren eta giza eskubideen arloko proiektuetarako dirulaguntzak arautzen dituen.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAri Hiperesteka)

57/2018 DEKRETUA, apirilaren 24koa, bizikidetzaren eta giza eskubideen arloko proiektuetarako dirulaguntzak arautzen dituen.

EBAZPENA, 2024ko maiatzaren 2koa, Giza Eskubide, Biktima eta Aniztasuneko zuzendariarena, zeinaren bidez bizikidetzaren eta giza eskubideen arloan proiektuak egiten dituzten Euskal Autonomia Erkidegoko udal eta gainerako toki-entitateentzako laguntzen deialdia egiten baita.

EBAZPENA, 2024ko urriaren 24koa, Giza Eskubide, Memoria eta Lankidetzako sailburuordearena, zeinaren bidez ebazten baita bizikidetzaren eta giza eskubideen arloan proiektuak burutzen dituzten irabazteko asmorik gabeko erakunde pribatuentzako laguntzen deialdia.

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Programaren helburu nagusia da Euskal Autonomia Erkidegoko elkarteek eta toki-erakundeek garatutako proiektu edo ekimenak diruz laguntzea, gure gizartean bizikidetzaren eta giza eskubideen kultura sustatzeko, giza duintasunaren oinarrian eta enpatiaren eta elkartasunaren aldeko aukeran oinarrituta.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. Dirulaguntza-programaren genero-ikuspegian izango duen eragina ere jasoko da, hala dagokionean.

2024ko deialdian 275 proiektu jaso ziren guztira, eta horietatik 7k erakunde interesdunek atzera egin zuten; 17k ezezkoa jaso zuten: 1, deialdiaren ondorioz 1. artikuluan ezarritako xedetik kanpo zeudelako; 5ek, ez dutelako onuradun, deialdiaren ondorioz 2. artikuluan agertzen diren pertsonak arabera; eta 11k, ez zutelako lortu bizikidetzaren eta giza eskubideen arloko proiektuak laguntzeko laguntzak arautzen dituen 57/2018 Dekretuaren 10.2 artikuluan ezarritako gutxieneko puntuazioa.

Programa honetara bideratutako zuzkidura ekonomikoa 900.000 €-koa da. Guztira, eskatutako dirulaguntzak 5.325.632,50 €-koak izan ziren 2023an. Beraz, 0,31ko portzentaje murriztailea aplikatu zen 899.959,75 €-ra egokitzeko, eta, horrela, programarako zuzkidura ekonomikoa ez gainditzeko.

Genero-ikuspegiari dagokionez, deialdi honetan aurkeztutako proiektuak oraindik ez dira justifikatu. Epea 2025eko urriaren 1ean amaitzen da. Parte hartzeko aurreikusitako hartzaileak hauek izan daitezke: 760.000 emakume eta 740.000 gizon.



6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emitza</u>
• Lagundutako ekimenen kopurua.	250	251
• Parte hartu duten gizarte-erakundeen kopurua.	100	104



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Udalei bizikidetza eta giza eskubideen programetarako dirulaguntzak

2.- Araua

57/2018 DEKRETUA, apirilaren 24koa, bizikidetzaren eta giza eskubideen arloko proiektuetarako dirulaguntzak arautzen dituen.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAari Hiperesteka)

57/2018 DEKRETUA, apirilaren 24koa, bizikidetzaren eta giza eskubideen arloko proiektuetarako dirulaguntzak arautzen dituen.

EBAZPENA, 2024ko maiatzaren 2koa, Giza Eskubide, Biktima eta Aniztasuneko zuzendariarena, zeinaren bidez bizikidetzaren eta giza eskubideen arloan proiektuak egiten dituzten Euskal Autonomia Erkidegoko udal eta gainerako toki-entitateentzako laguntzen deialdia egiten baita.

EBAZPENA, 2024ko urriaren 24koa, Giza Eskubide, Memoria eta Lankidetzako sailburuordearena, bizikidetzaren eta giza eskubideen arloan proiektuak egiten dituzten Euskal Autonomia Erkidegoko udalerrientzako eta gainerako toki-erakundeentzako laguntzen deialdia ebazten duena.

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Euskal Autonomia Erkidegoko udalerriek eta gainerako toki-erakundeek garatutako proiektuak finantzatzeko laguntzak ematea, proiektu horiek bizikidetzaren, giza eskubideen errespetuaren, enpatia- eta elkartasunaren kultura sustatzen badute gure gizartean.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. Dirulaguntza-programaren genero-ikuspegian izango duen eragina ere jasoko da, hala dagokionean.

2023ko deialdian 74 proiektu aurkeztu ziren guztira, eta horietatik 6 ukatu egin ziren: 1 erakunde eskatzailea ez izateagatik, bestea (1) eremu objektibotik kanpo egoteagatik eta 2 interesdunek atzera egiteagatik.

Dirulaguntzen programa honetara bideratutako diru-zuzkidura 250.000,00 €-koa da. Puntuak eurotan bihurtu ondoren, emandako dirulaguntzen zenbateko osoa 845.590,06 €-koa da. Beraz, %0,57-ko ehuneko murriztailea aplikatu zen programara bideratutako zuzkidura ekonomikora egokitzeko.

Genero-ikuspegiari dagokionez, deialdi honetan aurkeztutako proiektuak oraindik ez dira justifikatu. Epea 2024ko urriaren 1ean amaitzen da. Parte hartzera aurreikusitako hartzaile posibleak hauek dira: 319.222 emakume eta 297.868 gizon.



6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
• Lagundutako ekimenen kopurua.	60	74
• Parte hartu duten udal eta gizarte-erakundeen kopurua.	45	34

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Giza Eskubideen «René Cassin» Saria

2.- Araua

427/2013 DEKRETUA, urriaren 16koa, Giza Eskubideen «René Cassin» Saria arautzeko dena.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAri Hiperesteka)

427/2013 DEKRETUA, urriaren 16koa, Giza Eskubideen «René Cassin» Saria arautzeko dena.

EBAZPENA, 2024ko urriaren 15ekoa, Giza Eskubide, Biktima eta Aniztasuneko zuzendariarena, «René Cassin» 2024 sarirako deialdia egiten duena.

EBAZPENA, 2024ko azaroaren 27koa, Giza Eskubide, Biktima eta Aniztasun zuzendariarena, zeinaren bidez Giza Eskubideen 2024ko «René Cassin» saria ematen baita.

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Giza Eskubideen eremuan, irabazi-asmorik gabeko pertsona fisiko edo juridikoek, publiko zein pribatuek, beren jarduera eta ibilbide pertsonal edo profesionalarekin giza eskubideak sustatzeko, defendatzeko eta zabaltzeko konpromisoaren lekukotza ematen dutela jendaurrean aitortzea.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. Dirulaguntza-programaren genero-ikuspegian izango duen eragina ere jasoko da, hala dagokionean.

Saria 2003an sortu zen, Giza Eskubideen alde egindako lan nabarmenengatik pertsonak edo kolektiboak jendaurrean aitortzeko. Renné Cassin jaso duten pertsona eta erakundeen artean daude, besteak beste, Abuelas Plaza de Mayo Elkarte Zibila, Desmond Tutu, Sexual Minorities Uganda, Federico Mayor Zaragoza, Alec Reid, Koro Erdozia Lasa, Elisa Loncon Antileo, Dora M^a Tellez, Heriotza Zigorren Aurrakako Nazioarteko Batzordea, eta, azken edizioan, 2024an, UNRWA - ACEUren Espainiako Komite Elkarte, funtsezko zeregina betetzen duelako milioika errefuxiatu palestinarren giza eskubideak babesten eta sustatzen, eta palestinar errefuxiatuei funtsezko zerbitzuak, hala nola hezkuntza, osasun-arreta eta laguntza humanitaria, eskuratzen bermatzen dielako. Aurrekontu-partida osorik gauzatzen da.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	Emaitza
• Saria pertsona edo erakunde irabazle bati ematea.	1	1
• Saria emateko ekitaldia egitea.	1	1